

## Hormonen kontra

**B**

ada zenbakien bitartez mundua azaldu eta ulertu dezakeen jendea, baina bada hormonien bitartez mundua azaldu eta ulertzen duenik ere: emakume bat senarrarekin haserretzen dela, hormonak jautzika izango ditu; senarrak emakumea akabatzen duela, testosterona gehiegi; nerabe batek bere buruaz beste egiten duela, aldaketa hormonalak betean egongo zen. Tira, nik ez dut gauza gehiegirik ulertzen afera honi buruz, eta egia baino zalantza gehiago ditut.

Behin, ikasle garaian, transexualak jendarteratzeko egoitza batera bidali ninduten, zuzendaria entrebistatzera. Bere kasuaz hitz egin zidan: generoa tronpatuta sortu zela, eta ar jaio arren eme sentitu zela beti, txiki-txikitatik, eta haurtzaro rokanboleskoa izan zuela horren erruz, pentsa. Nik, eme sentitze hura zer ote zen galdetu nion. Eta berak, ile luzea nahi zuela izan, eta belarritakoak, eta soka saltoan ibili, “neskatila bat izan, azken finean”. “Honek ez daki neskatala bat izatea zer den” pentsatu nuen. Eta fantasia mistiko haren izenean zakila moztu ote zuen galdetu nion nire buruari behin eta berriz, ez ote zen ekonomikoagoa guztientzat soka saltora adats luze errubioekin jolasten utzi izan baliote. Joan aurretik aitortu zidan, eskua hankartera eramanda: “ez dut moztu, baina urteak dira ez diodala begiratzen”.

Zorabiatu atera nintzen lurrin eta bisturri usaineko egoitza hartatik: emakumezko edo gizonezko sentitu al daiteke inor? Eta hala bada, zeintzuk dira bata edo beste sentitzeko ezaugarriak? Estuegi zitzaizkion takoidun zapaten gainean urrutiratzen ikusteak sortutako errukia ezin nuen uxatu.

Urte batzuk geroxeago, Preciadoren *Manifestu kontrasexuala* irakurri nuen, gauza gehiegirik ulertu gabe, egia esan. Irakurri nuen, Santiago de Txileko *Metales Pesados* liburu-dendan ezagutu nuelako neska bulartsu eta bere gisara



DANI BLANCO

Eider Rodriguez

Olasagarre

Agirre

eder hura. Aurkeztu egin zidaten eta solasean aritu ginen, teoriak ematen duen babesa lagun, eta Preciadok, emakume edo gizonezko izatetik askatu beharraz hitz egin zidan, eta dildo, zakil eta aluen testura eta koloreei buruz mintzatu zitzaizdan gartsu. Beso bat heldu zidan eta “hau zakil bat da” esan zuen, ume bati animalien izenak erakusten dizkionaren

freskotasunaz.

Nire ezjakintasunaz berehala ohartuta, “Estudios de género” idatzita zuen apalategi batera eraman ninduen Preciadok. Artean, ez nuen “genero” hitzaren adiera hura ezagutzen (“Genero indarkeria” terminoa asmatu aurretik, nola esaten zitzaion putaseme batek emakume bat hiltzeari?). Nik, gaizki ulertutako jendetasunak aginduta, eta alemanekin batera, euskaldunok garelako errua –orotarikoa– barneratuen daramagun herria, bere liburu hartu, orritzatu, patrikak haztatu eta erosi egin nuen.

Irakurri beste egiteko hoberik ez nuela elur eternalen lurralde hartan.

Garai hartan, editore egiten nuen lan eta Pedro Lemebel idazlearekin nengoen lotuta bazkaltzeko, Preciado ezagutu nuen egunean bertan. *De perlas y cicatrices* eta *El Zanjón de la Aguada* liburuengatik ezagutzen nuen Txileko homosexualak literaturaren plazara jalgi zituen idazlea: fina bezain gordina, jasoa bezain aldiritarra, ezkertiarra, mundutarra, alaia, modernoa... Miresten nuen eta urduri nengoen. Bazkariaren erdian, eskua oratu zidan, eta lesbiana ote nintzenentz galdetu zidan itxaropentsu. “Zergatik?” nik. “Zigarroa erre duzulako bazkaltzen ari zinen bitartean”.

Nik ez ditut nire koktel hormonalaren proportzioak ezagutzen, eta ezagutuko banitu ere... Aizue, gaia –pixka bat– aldatuz: ez al zaizue iruditzen zutabegileon artean norbere buruaz –gehiegi– hitz egiteko joera zabaltzen ari dela? ■

Miresten nuen eta urduri nengoen. Bazkariaren erdian, eskua oratu zidan, eta lesbiana ote nintzenentz galdetu zidan itxaropentsu. “Zergatik?” nik. ‘Zigarroa erre duzulako bazkaltzen ari zinen bitartean’